

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Oñatiko Udalak, bere egiten du gure herria indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitze bidean dagokion ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen guztien kontrako borrokan.

Aparteko une batean bizi gara; osasun-larrialdi egoerak foku guztiak bereganatu ditu eta gure bizimoduan eragin handia izan du. Baina bereziki kaltetu ditu egoera zaurgarrietan dauden pertsonak, eta horien artean indarkeria matxistaren biktimak. Larrialdi egoeraren aurrean hartutako segurtasun eta osasun neurriek, haien erasotzaileekin egotera behartu dituzte indarkeria jasaten duten emakume eta haurrak, autodefentsa eta salaketarako bideak mugatuz, eta gainera, zenbaitetan, arretarako zerbitzuak eten edo nabarmen moldatu dira, babesgabetasun sentrazioa areagotuz.

Hala, lehentasunezkoa da une honetan jakitea, indarkeria matxistari dagokionez, nola eragiten dien krisi honek emakumeei eta haien seme-alabei zer modu berri sortu diren, zer eredu aldatu diren, zer adierazpen areagotu diren... eta zeintzuk diren egoera honetan egin daitezkeen zerbitzuen moldaketak edo har daitezkeen neurriak, egindako akatsak errepika ez daitezten. Eta kontuan hartu beharko genuke azterketa honetan, litekeena dela indarkeria matxistak beste bazterkeria- edo indarkeria-elementu batzuekin elkarrengaitan duen kasu konplexuagoei erantzuteko beharra areagotzea. Erakunde gisa, gure betebeharra da emakume eta seme-alaba guztiek beren egoerarako arreta egokiena jasotzen dutela bermatzea.

Krisia ezin da aitzakia izan aurrekontuak eta zerbitzuak izozteko, eteteko edo murrizteko. Indarkeria matxistaren arreta, prebentzioak, sentsibilizazioak eta erreparazioak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, beharrezkoak diren baliabide guztiak konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortuko dugu arazoa desagerrarazte bidean urratsak ematea.

Gogoan dugu, gaurkoan, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Hala, mugimendu feministarekin batera zehaztutako norabidean, Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko bidea egin behar dugu, bakoitzak dagokion espaziotik eraginez. Horregatik, Oñatiko udalak, **honako konpromisoak** hartzen ditu bere gain:.

PROPOSAMENA:

- 1.- Oñatiko Udal honek konpromisoa hartzen du COVID19aren krisiak indarkeria matxistetan izan ditzakeen eraginak aztertzeko, aldundiekin, Emakunderekin eta mugimendu feminista eta emakume-elkarteekin koordinatuta.
- 2.- Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du aurreko puntuan identifikatutako beharrei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren programak, neurriak edo zerbitzuak martxan jartzeko edo indartzeko, horretarako beharrezko baliabideak bideratuz 2021eko aurrekontuetan.
- 3.- Oñatiko udalak konpromisoa hartzen du instituzio arteko koordinazio protokoloaren jarraipen eta etengabeko ebaluaziorako baliabideak ezartzeko, eta eskatzen die protokoloaren sinatzaile diren gainerako instituzioei, protokolo honen garapenera dagozkion baliabide teknikoak bideratu ditzala.
- 4.- Oñatiko Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorren sendotzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID19ko krisiak eragina berezia izan duen esparruetan.
- 5.- Oñatiko Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko egungo egoerari egokitutako jarduera eta espazio iraunkorrak sustatuko ditu, emakume horien arteko sareak indartuz, eta elkarlanerako espazioak sortuz.
- 6.- Oñatiko udaletik, eragite espazio feministen aldeko konpromisoa berretsi nahi dugu indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bidean. Hala, herriko mugimendu feminista edo Oñatiko emakumion kontseilua bezalako espazioak babestu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu.
- 7.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.